



# txi kitto!



**Aratoste  
koloretsuenei agur!!!**

**Argitaratzailea**

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera.  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

**Erredakzio kontseilua**

Maider Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak.

**Administrazioa**

Marisol Uriarte.

**Erredakzioa**

Maider Aranberri eta  
Ekhi Belar.

**Maketazioa**

Ana Aizpurua.

**Azaleko argazkia**

Maider Aranberri

**Copyright-a**

Txikitto!

**Lege-gordailua**

SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia

● Pepito, nola esaten da txakurra ingelesez?  
- Dog  
- Oso ondo, eta al baitaria?  
- Dogtor!



● Patxi baratzean, marrubiak ongarritzen ari da simaurrarekin eta lagun batek galdetzen dio:

- Zer ari zara egiten?  
- Hemen! Marrubiei kaka botatzen!  
- Aiba! Eta natarekin ez duzu probatu?



● Maisuak Jaimitori:  
- Jaimito! Zenbat da 2 gehi 2?  
- Auskalo! Datu gehiago ematen ez badidazu!

● - Jaimito, mesedez. Esaizkidazu tilde daramaten bi hitz.  
- Ba... Matilde eta Klotilde!



● RIIIIINNGG!!  
- Agustin al dago?  
- Eeezz, "inkomodin" nagooooo!!




● Bi are-ale basamortutik doaz eta batak esaten dio besteari:  
- Begira! Begira! A zer nolako manifestazioa!!




● Zer esaten dio horma batek besteari:  
- Izkinan ikusiko gara.




● Asmakizunak:  
"Bi hanka izan arren ezin dugu biderik burutu, baina pertsona gu gabe ezin da inon aurkeztu". Zer da?



● Eta enbor batek beste bati?  
- Zer gertatzen da, tronko!



## Gurutzegrama




1. Ikasten dugun lekua
- 2- Munduan asko dago
3. Usain ona du
4. Ilea dauka
5. Gauean dago
6. Familiakoa da
7. Irakurtzen dugun gauza

## Letra-zopa

- ZALDIA
- TXAKURRA
- KATUA
- UNTXIA
- DORDOKA
- TXORIA
- ARRAINA
- SUGEA

S	E	N	O	H	S	S	U	E	E	H	E	K	L	O	U	S	E	S	P	U	B
H	R	J	E	L	O	M	O	X	U	N	T	X	I	A	R	P	Z	N	S	J	G
I	N	S	R	K	V	C	O	L	E	N	I	H	W	I	C	O	L	O	T	G	I
J	H	A	T	O	L	I	S	O	G	E	N	A	C	K	T	G	A	C	M	K	B
V	O	I	E	D	K	V	T	T	Y	N	T	E	W	U	E	A	O	W	N	J	I
N	O	R	E	Z	L	E	O	U	T	S	O	L	Y	T	A	S	I	N	O	P	U
H	E	O	V	A	U	W	L	O	S	U	G	E	A	K	E	K	C	D	N	S	R
V	R	P	U	L	K	W	U	D	E	N	U	S	U	R	Z	S	L	O	A	R	K
R	U	I	T	D	A	K	C	W	U	E	N	S	I	K	T	I	R	R	E	U	
J	O	E	S	I	E	Y	S	S	A	N	K	E	A	H	O	L	I	D	I	Z	O
L	U	O	L	A	O	W	A	K	A	T	A	E	E	I	E	Y	K	O	E	T	A
O	R	E	L	S	E	K	L	H	W	D	S	S	J	Z	S	S	E	K	C	U	O
O	K	R	I	R	U	T	Y	A	U	N	T	B	A	N	O	B	V	A	K	O	T
A	I	S	C	W	K	O	R	K	A	T	U	A	N	I	M	E	M	O	L	T	H
J	O	Y	R	Z	Q	A	E	Z	T	A	W	A	E	O	R	I	T	V	L	O	
V	A	R	R	A	I	N	A	R	O	T	E	H	A	L	S	O	W	G	H	I	Y
S	J	X	E	S	Y	V	E	S	R	E	D	C	O	N	M	A	M	A	N	O	L
D	S	U	C	H	V	L	H	N	X	Z	A	T	X	O	R	E	A	M	O	Z	E
Y	V	R	O	L	J	R	O	V	W	C	E	O	S	E	A	C	N	N	S	A	C
L	U	O	O	V	N	T	A	K	I	H	W	L	O	H	A	C	I	T	O	G	
T	O	I	E	F	W	S	X	H	A	W	A	O	N	G	H	B	R	K	E	A	E
T	X	A	K	U	R	R	A	B	U	S	A	T	W	O	H	U	O	M	N	A	Z

## Labirintoa



# Lehiaketa

## 7 desberdintasunak



Bidali erantzunak **apirilak 1** baino lehen  
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel. ....



*Txikitto!ko lokalean egon zen  
Ane sariak jasotzen.*

### Aurreko hileko irabazlea, Ane Arritokieta

Zorionak Ane! Aurreko aleko erantzunak bikain  
asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara  
irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko kamiseta  
zuretako! ZORIONAK txapeldun!

Eguraldia lagun, Eibarko kaleak kolorez  
jantzita ikusi ditugu aurreko egunetan.  
Egun Zuri egunean ikastetxeetan eta  
kalean egin ziren jaialdiekin hasi ziren  
Aratosteak, eta asteburuan ere primeran  
pasatzeko aukera izan dugu. Hemen  
dituzue argazkiak:

### ZAPATUKO GIROA



ALDATZE



AMAÑA



LA SALLE




URKIZU



J.A. MOGEL



ARRATEKO ANDRA MARI



SAN ANDRES



KALDEREROAK eta pregoia



# PLAY-BACK LEHIAKETA

## ikasleekin berriketan

LA SALLE ISASIKO 5. MAILAKO IKASLEEK GOSPEL KANTUAK IKASTEN JARDUN DUTE KARMELE ANDEREÑOAREKIN. EZAGUTZEN EZ ZUTEN MUSIKA ESTILOAREKIN LILURATUTA BUKATU DU SEIKOTE HONEK, EUREN HITZENGATIK ANTZEMAN DAITEKEENEZ.



### Zer ikasi duzue gospelari buruz? Zer iruditu zaizue?



**Ainhize  
Egurrola,**  
10 urte



**Nerea  
Colmenero,**  
11 urte



**Nahia Ruiz,**  
10 urte

Ez nuen ezagutzen. Musika-mota bat zela banekien baina nolakoa zen ez. Musika-estilo bat da. Eliza afroamerikarretan hasi zen. Oso musika alaia da eta asko gustatu zait. Dibertigarria da eta abesten genuen bitartean ondo pasatu dugu. Euskeraz eta ingelesez abestu dugu.

Sekula entzun barik nuen gospela, eta ezagutu eta gero asko gustatu zait. 1619an sortu zen musika-estilo hau, esklabo beltzek abesten zioten Jainkoari eta gero, XX. mendeko 30. hamarkadan modernizatu egin zen. Orain elizatik kanpo ere entzun daiteke.

Asko gustatu zait, oso kantu martxosoak dira eta erropa ere oso polita da, koloretakoa. Guk eskolan egin ditugu tunikak, plastikozko poltsa moreekin. Hasiera batean elizetan abesten zuten baina gaur egun leku askotan entzun ditzakegu, kontzertuak eta egiten dira.



**Jon  
Rodriguez**  
10 urte



**Jon Recio,**  
10 urte



**Ekhi Iriondo,**  
10 urte

Nik ez nuen inoiz entzun gospela, eta Karmele andereñoak hilabetez gospela ikasiko genuela esan zidanean, "zer aspergarria!" pentsatu nuen, baina hasi eta berehala konturatu nintzen oso polita dela, alaia eta dibertigarria. Besoak asko mugitzen dira eta "Aleluya, aleluya" esaten da behin eta berriz.

Nik ere ez nuen sekula entzun gospela. Karmelek zer egingo genuen azaldu zigunean oso ideia ona iruditu zitzaidan hasieratik. Musika-estilo alaia eta dibertigarria da, kantatzearekin batera mugimendu asko egiten dira eta oso ondo pasatu dut. Ez dit lotsarik eman beste ikasleen aurrean kantatzea.

Hasieran ideia ez zitzaidan asko gustatu baina ikasten eta entsaiatzen hasi ginenean bai. Oso esperientzia ona izan da, asko gustatu zait. Oso abesti politak ikasi ditugu, euskeraz eta ingelesez. Karmelek nonbaiten entzun zuen gospela euskeraz, grabatu eta guri irakatsi digu.





## SAN ANDRES

San Andreseko Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleak Magia gaia aztertzen ari direnez, otsailaren 12an, Potx magoaren ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten. Hainbat galdera egin, trukuak ikusi eta ikasi zituzten. Potx, bereziki, oso alaia zen eta barrez lehertu ziren. Trikimailu harrigarriena, oihal bat oilasko eta untxi bihurtzea izan zen.

3. mailakoak "Munduko Misterioak" proiektua lantzen ari garenez, gela gamifikatzea bururatu zaigu. Horri buruz gehiago ikasteko, ikastetxera escape game bat ekartzea egokia zela pentsatu genuen. Otsailaren 15ean arratsaldean bertan genuen "Torre de Babel" izeneko escape game-a.



## URKIZU

Urkizu ikastetxean energia sortzeko modu desberdinen inguruko tailerrak izan genituen gure eskolan otsailean. Parte hartu zutenek asko ikasi zuten. Beste alde batetik, gure baratzean hazitako baratxuri freskoekin hamaiketakorako tortilla eder bat prestatu zuten 1. mailakoek. Lehen urazak ere jaso ditugu. 3. mailakoek gazta egiten ikasi dute eta egindako gazta denen artean jan zuten. Goxo-goxoa zegoela esan zuten! Eskolako handienek, klima-aldaketari buruzko hitzaldi eta tailerra izan zuten. Bukatzeko, odol emaleen bisita jaso genuen, egiten duten lanaren berri emateko.



## LA SALLE

Otsaila hasieran, La Salleko 3. eta 4. mailakoak igeriketa-ikastaroak izan dituzte.

Hilabetearen zehar, LH 2. mailatik aurrera, Ipurterre lehiaketan parte hartzeko ipuinak lantzen eta sortzen ibili gara eta azkenik, 28an, aratosteetako desfilean hartu genuen parte eta primeran pasatu genuen! aurreko orrialdeetan ikusiko duzue zein gairen inguruan mozorrotu garen aurten La Salleko ikasleak.



## ALDATZE

Otsailaren 20an, Aldatzeko 2. eta 3. mailako ikasle batzuk, 16 guztira, Matsariako zelai batean zuhaitzak landatzen aritu ziren Eibar Kirol Elkarteko goi mailako taldeetan jokatzeko duten mutil eta neska jokalariek batzuekin eta beste zenbait laguntzaileekin batera. Guztiek, eskularruak jantzita, lurtean zeuden zikinkeriak batu ostean, aitzumak eta palak hartu eta lizar eta haritz ugari landatu zituzten giro ezin hobean. Gainera, Matsariara joan aurretik ikasleek Ipuruako futbol zelaiko instalazioak bisitatzeko aukera izan zuten eta Matsariara Eibar Kirol Elkarteko autobusean joan ziren jokalariekin batera. Jokalariak oso atseginak izan ziren eta ikasleek primeran pasatu zuten!



## ARRATEKO ANDRA MARI

Kaixo Arrateko Andra Mari Ikastetxetik!  
Aratosteak amaitu eta hemendik aurrera ere hainbat ekintza eta irteera antolatuta ditugu jada, besteak beste, martxoaren 5ean, 6. mailako ikasleek tailer zientifikoa izango dute, klima-aldaketaren astean. Martxoaren 6an, 4. mailako ikasleak Eroskik antolatutako "Hazteko energia" tailerra izango dute eta martxoaren 7an, Portaleara joango dira "Itsaspeko bihotzak" izeneko saio literarioan parte hartuz. Irteera pedagogikoak ere izango ditugu, 3. eta 4. mailakoak martxoaren 14an Debabarrena eskualdea bisitatzera joango dira eta martxoaren 29an 1. eta 2. mailakoak Azpeitiko ingurugiro-eskolara. 3. mailako ikasleak martxoan Eibarko eraikinak ezagutzera ere joango dira eta apirilaren 3an HH-ko 3, 4 eta 5 urteko ikasleak Basondora joango dira animaliak ikustera. Eta Aste Santuko oporrak hartu baino lehen, apirilaren 5ean Korrika Txikia!!!!



## AMAÑA

Amaña ikastetxeko HH4ko ikasleak Ego gain egoitzan izan ziren. Belaunaldi arteko ekintzak programaren barruan, ikasleak egoitzara hurbildu ziren bertakoekin tartetxo bat partekatzeko. Kokozko gailetak eta belarrezko ileak hazten zaizkion patatak egin zituzten. Ze ondo pasa zuten!! Martxoan HH5koek lekukoa hartu eta egoitzara hurbilduko dira ekintza berriak burutzeko irrikaz.







sukal-saltsan

## Muffin gaziak

Sandwich bat egitea moduan da baina abantaila batekin: denak batera egin daitezkeela. Hirugihar eta arrautza muffin-ak egingo ditugu oraingoan, gozoak benetaraan...

### Osagaiak:

- 3 xerra moldeko ogi
- 6 hirugihar-xerra plantxan
- 6 goilaratxo gazta birrindu
- 6 arrautza
- Gatz eta piperbeltza
- Tipulin freskoa



### Nola egin:

- 1.- Berotu labea 200-210 gradutan. Bitartean edalontzi baten laguntzaz pare bat zirkulu moztu ogi-xerra bakoitzean.
2. Zirkulu horietako bakoitza muffin-ak egiteko moldeetan sartu. Inguruan hirugiharra jarri eta goilarakatxo bat gazta birrindu gehitu.
- 3.- Arrautza bana jarri zuloetako bakoitzean, gatz eta piperbeltza bota eta labean sartu 15 minutuz 200 gradutan, arrautza egin arte. Nahi izanez gero, tipulin freskoa jarri gainean.



## Txokolatezko txip-ak

Errezeta hau egiteko patatak "pringles" motakoak izatea hobe, zapore berezirik ez dutenak, txokolatea hobeto itsatsiko zaie-eta. Txokolatea txikitu eta mikrouhin-labeetan urtu. Busti patatak txokolatean geruza fin bat hartu arte. Behin hori eginda, labeko paper gainean utzi. Bertan utzi txokolatea gogortzen hasi arte. Orduan, txokolatea oraindik guztiz gogortu ez denean, hautsez tatu gainetik petazetak eta itxaron txokolatea gogortu arte.



ni bai artista!

## Mini-futbolina

Zeini ez zaio gustatzen futbolinean jolastea? Gehienoi bai, ezta? Bada, ez galdu aukera eta ekin lanari!

### Materiala:

- Zapata-kaxa bat
- Egurrezko brotxeta handiak
- Pintzak
- Ping-pong pilota



### Pausoak:

- 1.- Brotxeta bakoitzean 2-3 pintza lotu. "Futbol-zelaia" ondo antolatzeko, jarri brotxetak kaxaren gainetik, lekua ondo antolatu eta brotxetak nola, zenbat eta non jarriko dugun erabakitzeko.
- 2.- Arkatz edo errotulagailu batekin puntutxo bat marraztu justu zuloa egingo duzuen lekuan, gero brotxetak sartzeko. Paper-zulagailuarekin zulatu. Ateak egiteko artaziekin laukikuzen bat moztu alde bakoitzean, ping-pong pilota baino zertxobait handiagoa.
- 3.- Bi taldeak bereizteko margotu pintzak nahi duzuen koloreekin, eta behin prest dituzuenean, sartu brotxetak kaxan.
- 4.- Brotxetak zuloetatik ez irteteko gomatxo elastikoak jarriko ditugu alde banatan brotxetak atzera eta aurrera mugitzeko tarte nahikoa utziz. Pilota sartu eta, jolastera!



## Botoi-pultserak

Oraingoan ez duzue aitziaiarik ondorengo eskulana egiteko; errazagoa imposible! Bai, bai, eskulanetan traketsak zarenok ere bai! Hari edo artile pixkat eta lau zulodun botoiak besterik ez duzue behar. A, beno, eta imajinazio apur bat. Irudian ikus daitekeen moduan kolore ezberdinetako hariak eta botoiak erabil ditzakezue, eta zulotxoetatik sartuz eta korapiloak eginez, pultsera zoragarriak egingo dituzue, zuentzako, opari bat egiteko... Animo!





## zer irakurri

Juan San Martin Liiburutegia



### Burua auzoan 6 urtetik aurrera

“Albert, burua auzoan duzu!”, sarritan esaten diote. Sukaldeko mahaian eserita edo eskolan dagoela, Albert ametsetan galtzen da. Kontzentratzen da, eta ahalegintzen da oinak lurrean izaten, baina buruak ihes egiten dio. Astelehenean, ikertzaile lanetan dabil; asteartean, herensugearen kontra borrokan; ostegunean, hegan doa apo baten bizkarrean... Zer egin? Ametsik gabeko bizitza ez da batere dibertigarria.



### Barrez lehertzeko moduko istorioa 8 urtetik aurrera

Mortina neskatoa da, baina ez besteak bezalakoa: neska zontzia da. Villa Dekadenten bizi da izeko Angustias eta beti berarekin dabilen Betilunekin, bizirik edo hilda dagoen jakitea zaila den txakurrarekin batera. Mortinak bere adineko lagunak izatea nahiko luke, haiekin jolastu eta ondo pasatzeko, baina izekok ez dio uzten besteen aurrean agertzen; izan ere, jendea ikaratuko luke.



### Harri berdea 10 urtetik aurrera

Kaixo! Txano dut izena, eta anaia txiki bat dut: Oscar. Ikusi al duzu inoiz meteorito bat zerutik erortzen? Ba, guk bai... Uda hasieran, txango bat egiten ari ginela, halako batean suzko bola erraldoi batek zeharkatu zuen zerua gure begien aurrean, eta basoan erori zen! Bai, badakit berehala aldendu behar izango genukeela handik, baina ez, gu meteoritoaren bila abiatu ginen.

## ORKESTRA (Urkizu eskola)

### ZELAN JOLASTU?

- 1- Parte-hartzaileak borobilean jartzen dira eta pertsona bat aukeratzen dute gelatik ateratzeko.
- 2- Borobilean geratzen direnen artean zuzendari bat izendatzen da.
- 3- Zuzendariak egiten dituen mugimenduak kopia behar dituzte besteek, gorputz perkusioa eginez.
- 4- Kanpoan dagoena gelan sartu behar da eta zuzendaria zein den asmatu behar du. Horretarako, hiru saiakera edukiko ditu.



### BIDEOA:

<https://etakitto.eus/txikitto/urkizu-jolasa.html>

## jolastokixan jolasian



ipuina

## Ostegun gizona

Bazen behin Maite izeneko neska bat.

Maitek begi urdinak zituen zerua bezala, ile horia eta 6.mailan zegoen.

Bere gurasoekin bizi zen etxe polit eta handi batean.

Maitek lagun asko zituen eta beti oso ondo pasatzen zuen txorakeriak egiten.

Aratosteak oso gertu zeuden eta egun batean gauza bat bururatu zitzaion bainaaa.....

Ez zuen esan nahiiii!!!!!!!!!!!!!!

Barkatu ipuin hau irakurtzen ari zaretenoi, horrela ezin duzue jakin zer bururatu zitzaion!!!!

Beno, azkenean esango dizuet, hauxe da bururatu zitzaiona:

ARATOSTETAKO FESTA BAT EGIN NAHI ZUEEEEEEEEN!!!!!!

Baina gainera bere etxean eta bere gurasoen baimen bariiiik!!!

Ezin zuen sinistu baina azkenean baietz esan zuen.

Bere gurasoak enteratzen baziren zigortu egingo zuten Maite, eta ezingo zuen bere lagunekin kalera atera eta mobilarekin jolastu. Telebista ikusten ere ez zioten lagako eta YouTube ibiltzen ere ez!!!!

Hau ezinezkoa da!

Berak ezin zuen YouTube ikusi barik geratuuu!!

Azkenean otsailaren 28a iritsi zen eta bere gurasoak lanera joan ziren.

Pixkanaka jendea etortzen hasi zen eta dena oso ondo zegoen.

Jende asko joan zen bere festara; denak mozorrotuta joan ziren, denetik zegoen; piratak, pailazoak, indioak...



Musika jarri eta denak dantzan ari ziren poz-pezik.

Baina bere gurasoak Maitek pentsatu baino askoz lehenago etorri ziren.

Orduan esan zuen Maitek:

- Hau ez da uste duzuen, barkatu, ez zigortu! -erregutu zien Maitek negarrez.

- Hau barka ezina da Maite!-esan zuen aitak harrituta.

Aitak Maite zigortu zuen eta Maitek zigorra onartu eta aita besarkatu zuen.

Egun horretatik aurrera Maitek ez zuen gezur gehiago esan.

ETA ALA BAZAN EDO EZ BAZAN SAR DADILA MAITEREN FESTAN!!!!!!!!!!

HIBA EL MANSSOURI ETA WISSAL AIT BOUAZZA



zu margolari